



## Euskarazko irakaskuntza lau haizetara

Iragan asteburuan, Euskararen Legearen ustezko aldaketaren testuinguruan, zenbait hedabidek argitaratu dute NIEren adierazpena, non eskatzen baitzen aitor dakiela ikastolei euskararen alde azken hamarkadetan eginiko lana. STEE-EILASek zain eta muin eta jendaurrean egiten du aitormen hori; are gehiago, nabarmentzen du ikastolarik gabe, beren muga guztiekin, ez litzatekeela euskararik izanen Nafarroako irakaskuntzan. “Eremu ez-euskalduneko” ikastolen inguruan, baldintza latzetan, antolatu diren familiak ere bereziki merezi dute delako aitormena. Haiei eskerrak errotu da euskarazko murgiltze eredia zenbait lekutan. Aipatu ikastolek izan dute, halaber, D ereduko ikasle, familia eta irakasleen babes eta laguntza, hauek parte hartu baitute, gogotsu parte hartu ere, “eremu ez-euskalduneko” antolatu diren Nafarroa Oinezeko ospakizunetan. Baina ezin ditugu ahantzi haurrak sare publikoan eskolatu dituzten familiak, beraien herrietan D eredia izatea galarazten zien muga aizunaz haraindi. Garesti ordaindu dute hautua.

Orain etorriko bide den aldaketak eragina izan du, orobat, jendartearen sektore ugarritan. Barcina ohartarazi du “*estatu-auzia dela*” euskarari buruzkoa; Iribasek, berriz, guztiz larriturik, dio “eremu ez-euskalduneko” ikastolek arazo gehiago izan ditzaketela. Eta ulergarria da ikastolek ezbaiek izatea lurralde berri honen aurrean. Batetik, ontzat ematen dute euskarari buruzko legearen aldaketa; bestetik, eskaintza ikastetxe publiko guztietara zabalduz gero, kezkatu daude ikastolek izan dezaketen etorkizunaren gainean. Zalantza bera agertu zen garai batean “eremu mistoko” herri batzuetan. Baina, horra garbi dagoena: familia askoren borrokaren fruitu izan zen Iruñeko Udal Ikastola ireki zenetik (1977an), euskarazko sare publikoa hazi eta hazi egin da Nafarroan, euskarazko irakaskuntzaren buru izateraino. Garai batean, erruz eztabaidatu zen euskarazko lerroak zabaltzea gaztelaniazkoen ondoan ikastetxe publikoetan. Ordea, irakasleen jardun bikainak eta familien ahaleginak ezin ukatuzko arrakasta bihurtu dute Nafarroako ikastetxe publikoen D eredia.

Une honetan, egoki jokatzeko asmatu behar dugu lege-aldaketak eskaintzen digun aukerari begira, baliatu beharra baitago euskara Nafarroako txoko guztietaraino irits dadin lortzeko. Gaur egun, eremu ez-euskalduneko, ikastolak 6 herritan besterik ez daude, eta haien eskaintzak derrigorrezko hezkuntza hartzen du bakarrik. Lerro berriak ireki behar dira ikastetxe publikoetan, ikasle kopuru txikiarekin bada ere, ahalik eta herri gehienetan, jendeak errepidean harat-honat ibili beharrik izan ez dezan, eta eskaintza zabaldu derrigorrezko hezkuntzatik goragoko mailetara; familiak animatu behar dira, haien zalantzak uxatu, babes-sareak sortu, eskolaz kanpoko ekitaldiak antolatzen lagundu... Zorrotz begiratuko dugu, ahal dugun neurrian, D ereduko eskaintza publikoa garbia izan dadin eta familiek hautatu ahal izan dezaten inolako eragozpenik izan gabe.

Parlamentuko taldeek garbi agertu beharko diote nafar jendarteari hezkuntza publikoarekiko konpromisoa, eta erabaki beharko dute nola eta zer helbururekin txertatzen dituzten Ikastolen Federazioak helarazi dizkien eskaerak (guztiak edo haietakoren bat), eskaera



horiekin ados baldin badaude. STEE-EILAS aurka agertuko da baldin eta kooperatiba horien interesak lehenesten badira familiek beren herrian D eredu izateko daukaten eskubide legitimoaren ginetik.

STEE-EILASek bere jarrera zalantza izpirik gabe sistema publikoaren alde agertzen du, hezkuntza sistema ardaztu behar duen eskola publikoaren alde eta euskararen arloan sareen dikotomia gaintzearen alde. Euskarari merezi duen duintasuna eman behar diogu denon artean, inork ez dezan baliatu gizartea zatitzeko tresna gisara D ereduko irakasleen lana edo haien klaseetan erabiltzen diren materialak susmopean jarriz. Mezu positiboa zabaldu behar dugu, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak jakitearen garrantzia azpimarratuz gizartea kohesionatzen laguntzeko xedearekin. Testuinguru honetan, hau une egokia izan liteke ikastolei sare publikoan txertatzeko aukera emateko, EAEn 80ko hamarkadan egin zen bezalaxe, ikastetxe horietan lanean aritu diren irakasleei beren lanpostuetan egonkortasuna eskainiz.

Euskararen legean sartuko diren aldaketak garrantzitsuak dira, baina ez dira inondik inora aski. Bada garaia behin betiko alde batera uzteko eremukako lurralde-banaketa, bada garaia hizkuntza politiko integral bat izateko, bada garaia Nafarroako Gobernuak ikasle guztiei bermatzeko bertako bi hizkuntzen ezagupena.